

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2284

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 9koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Eskualdeko Enplegu Planak dinamizatzeko laguntzetarako deialdia egiten duena.

Toki-eremua da egokiena produkzio-aukera berriak atzemateko; horregatik, ezinbestekoa da enplegu-politikek, beren diseinuari eta kudeaketa-ereduari dagokionez, beren tokiko dimentsioa kontuan hartzea lurraldearen premietara egokitzeko, eta, era horretan, potentzial hori aprobetxatzen lagunduko duten ekintzak sustatuko dituzte eta eremu horretan enplegua nahiz enpresa-jarduera sortzeko ekimenak ahalbidetu eta lagunduko dituzte, hala aurreikusita baitago enpleguari buruzko oinarritzko araudian, hots, abenduaren 16ko 56/2003 Legean.

Administrazio publikoen arteko erakunde-arloko lankidetzaren behar-beharrezkoa da politika horiek toki-eremuan abian jartzeko eta dinamizatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak du enplegu-politikaren alorreko eskumena, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 12. artikuluan. Aipatutako dekretua 20/2009 Dekretuak aldatu zuen. Eginkizun horien artean, enplegu-alorreko plangintza estrategikoa nabarmendu behar da, Plangintza eta Enplegu Sailburuordetzari esleitzen zaiona.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua deituriko erakunde autonomoa dago, honako helburu hau betetzeko sortu zen erakundea: enplegu egonkor eta kalitatezko eskubidearen garapen osoari laguntzea, eta langileen enplegarritasuna bermatzen modu eraginkorrean lagunduko duen lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokitutako langileen premiak asetzea, baita gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea ere, betiere esleitzen zaizkion enplegu-politikak kudeatuz eta lan-arloko legeria egikaritzuz.

Helburu horiekin bat etorritik, urriaren 16ko 3/2011 Legeak Lanbideri esleitzen dizkion eginkizunen artean, honako hauek daude, besteak beste: enplegu-alorreko politika publikoen antolamendu eta plangintza orokorra, sektoriala eta lurraldekua proposatzea, enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta autoenpleguaren eta enpresen sorkuntzen sustapenerako programen kudeaketa, eta enplegu-politiken tokiko dimentsioarekin zehazkiago eta zuzenago lotuta dagoen planoan, enplegua sortzen duten tokiko ekimenei laguntzeko programak diseinatzea, tokiko erakundeekin laguntzarekin, enpleguaren aldeko tokiko itunak gara daitezen sustatuz.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, dagozkien eskumenen eremuan, 2011-2014 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategia egiten parte hartu dute. Aipatutako Estrategia Jaurkitzearen Kontseiluak onartu zuen 2011ko abenduaren 20ko osoko bilkuran, eta haren zehaztapen gisa, Lanbideren Administrazio Kontseiluak, 2012ko otsailaren 14ko Akordio bidez, 2012ko Enplegu Plan Operatiboa onartu du.

Tresna estrategikoaren eta operatiboaren esparruan, enplegu-politikaren tokiko dimentsioa indartu nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan, esku-hartze eredu malgua, tokiko errealitate sozialera eta ekonomikora egokituta dagoena eta produkzio-ingurunearen nahiz esku hartzen

duten agenteen jakintza sakonean oinarrituta dagoena, definituz; horretarako, Lanbideri esleitzen zaio lehentasuna duen toki-eremuan enplegua sustatzeko plan espezifikoaren diseinua eta egikaritzapena modu aktiboan bultzatzeko helburua, betiere Euskadin langabeziaren intzidentziak sakabanatze geografiko handia duela argi edukita.

Ikuspegi horretatik begiratuta, lurraldearen errealitatea ezagutu behar da, eta eskualde bakoitzari buruzko azterlan sakona egin ondoren, enplegua sustatzeko eskualde bakoitzean aplikatu behar diren neurriak atzeman behar dira; hori guztia, tokiko erakundeek enplegua sortzeko motor gisa duten zeregina bultzatuz eta enpresa txikien eta ertainen sorrera irmoki lagunduz; izan ere, enpresa horiei esker enpresa-sarea egonkorragoa da, jarduerak dibertsifika daitezke, eta, batez ere, hazkunde ekonomiko iraunkorra lor daiteke.

Agindu honek helburu hori lortu nahi du, Aginduaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean Eskualdeko Enplegu Planak egin daitezen dinamizatzerako bideratutako laguntzen deialdia egitea baita, tokiko enplegua sortzea ekarriko duen jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri gisa, betiere erakunde publikoekin eta pribatuarekin lankidetzan jarduteko ereduaren testuinguruan.

Eskualdeko Enplegu Planak toki-eremuko erakundeen, entitateen, gizarte-agenteen, enpresen eta eskualde bateko edo eskualde hori osatzen duten udalerriren bateko edo udalerrri batzuetako garapen ekonomikoarekin eta sozialarekin elkarlanean aritzen diren bestelako erakundeen arteko adostasun-maila handienarekin egindako, partekatutako eta landutako proiektu gisa definitzen dira. Adostasun horren ondorioz, enplegua sustatzea eta enpleguaren tokiko garapena lortu nahi duten ekintza jakin batzuk eta programa bereziak sortuko dira, lan-merkatuan izandako aldaketek eragindako desorekak gaingituz.

2012ko Enplegu Plan Operatiboan adierazten denez, erakundeek eta agente sozialek eta ekonomikoek ekintza politikoaren, sozialaren eta enpresa-arlokoaren helburu komunengatik inguruan gauzatzen duten ekintza ez da soilik erakunde autonomoak eskuragarri dituen baliabide publikoen gaineko gobernu-jardunera (kasu honetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua den heinean) mugatu behar. Eskualdeko Enplegu Planak, beraz, ez luke enplegu-politika aktiboaren beste tresna bat gehiago izan behar, hau da, Lanbideek tokiko eragileak finantzatzeko erabiltzen duen tresna, eragile horiek, hedadura handiagoz edo txikiagoz, Enpleguaren Zerbitzu Publikoak enplegurako eta prestakuntzarako dituen baliabideak eta antolamendua eskala txikian kopiatzeko. Eskualdeko Enplegu Planaren balio erantsia izango da, alde batetik, gizartearen eta lurraldearen kohesioa lortzeko eremu geografiko bateko sektoreak mugitzeko duen gaitasuna, eta bestetik, informazioa aztertze eta benetako emaitzen jarraipena ez ezik, Eskualdeko Enplegu Planak bere egikaritze-prozesuan biltzen dituen emaitza horiek tokiko biztanleriarengan eta lan-merkatuan duten eraginaren jarraipena ere egiteko tresna berriak jartzeko duen birtualtasuna.

Eskualdeko Enplegu Planek berehalako ondorioak izan behar dituzte neurriak jartzeari dagokionez, eta, horrenbestez, dinamizatze eta lidergo partekatua izateko sortutako Partaidetza Foroetan adostu behar dira, hots, adostasuna lortzeko eta eragileekin, erakundeen ordezkariekin, agente sozialekin eta ekonomikoekin, bitarteko profesionalekin, traktzio-enpresekin, prestakuntza-zentroekin, zentro teknologikoekin eta abarrekin toki-eremuan lankidetzan jarduteko tokietan. Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lehentasuna emango dio Agindu honen babesean sortzen diren Enplegu Planetatik eratortzen diren neurri eta proiektuen alde egiteari.

Eskualdeko gizarte- eta ekonomia-agente garrantzitsu guztientzat irekita dagoen metodologia partizipatiboan oinarrituta, Partaidetza Foro horiek hainbat sinergia sustatu behar dituzte, lan-merkatuaren bilakaerari lotutako aldaketak aztertze eta merkatu horretan orekak sustatzeko proposatutako neurriek jarraipena egiteko eta neurri horiek ebaluatze gai diren sinergiak hain

zuzen ere, bereziki kontuan hartuta langabeak eta laneratzeko edo birlaneratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak.

Horrela sortutako Eskualdeko Enplegu Planak egiteko eta dinamizatzeko, Euskadiko Udalerriei eskatu zaie lankidetzak-akordioak ezartzeko eta helburu horrekin parte hartzeko diru-laguntzak jasotzeko deialdi honetan. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak neurri handi batean laguntzen du deialdi honen bitartez jardun hori egikaritzeari lotutako gastuak finantzatzeko, baina jardun horrek, nolanahi ere, Udalerrien inplikazio ekonomikoa behar du.

Azaldutakoari jarraiki, indarreko legerian esleitutako eskumenen arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak egindako proposamena –2012ko apirilaren 27ko osoko bilkuran onartu zena– kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Aginduaren xedea.

Agindu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean Eskualdeko Enplegu Planak egin daitezen dinamizatzea bideratutako laguntzen deialdia iragartzea da. Plan horiek Eusko Jaurlaritzaren Enpleguaren Euskal Estrategiaren Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2012ko Plan Operatiboan bildutako neurriak hartu behar dituzte erreferentziazat eskualde bakoitzeko herritarren enplegarritasuna hobetzeko, enplegua sortzeko eta enpresen lehiakortasuna lortzeko, betiere tokiko lan-merkatuaren errealitatera egokituz.

2. artikulua.– Eskualdeko Enplegu Plana.

1.– Deialdi honen ondorioarako, Eskualdeko Enplegu Plana toki-eremuko erakunde, entitate, gizarte-agente, enpresen eta eskualde bateko edo eskualde hori osatzen duen udalerriren bateko edo udalerriratu batzuetako garapen ekonomikoarekin eta sozialarekin elkarlanean aritzen diren bestelako erakunde (modu juridikoa edozein izanik ere) arteko adostasun-maila handienarekin egindako, partekatutako eta landutako proiektua da. Adostasun horren ondorioz, enplegua sustatzea eta enpleguaren tokiko garapena lortu nahi duten ekintza jakin batzuk eta programa bereziak sortuko dira, lan-merkatuan izandako aldaketek eragindako orekak gaindituz.

Enplegu Plana osatzen duten hiru elementu nagusiak honako hauek dira:

a) Eskualdeko diagnostiko sozioekonomikoa eta lan-merkatuaren diagnostikoa.

Lan-tresna horri esker, eskualdeko disfuntzionalitate nagusiak azter daitezke, baita enpleguaren garapen potentziala dagoela ikusten den eremuak ere. Eskualdeko oinarritzko eremuei buruzko diagnostikoa zehazteaz gain, eskualdeko demografiari eta lan-merkatuari nahiz hezkuntza-, ekonomia- eta gizarte-arloko egiturari dagokionez, helburu eta jardun-ildo estrategikoak proposatu behar ditu; era berean, Planak garatuko dituen ekintzen emaitzaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eta metodologia definituko ditu.

b) Helburu orokorrak eta estrategia.

Planak eginez honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Toki-eremuko enplegu-eskatzailen enplegarritasuna hobetzea.
- Lurraldea dinamizatzea hura bultzatzeko eta tokiko garapena sustatzeko.
- Ingurunearen indarberritze sozioekonomikoa.

- Erakundeen elkarlana eta lankidetzaren lurralde bateko herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.
- Berrikuntza, garapena eta teknologia berriak ez ezik, enplegu-sorguneak ere sustatzea, hobetzea eta areagotzea.

c) Ekintza Plana.

Ekintza Plana urte anitzekoa izango da, garatu beharreko proiektu jakin batzuk definituko ditu eta helburu orokorrak eta espezifikoak ez ezik, proiektuak egikaritzaz lortu nahi diren emaitzak ere adieraziko dira.

2.– Eskualdeko Enplegu Planen lurralde-eremua EAEko eskualde multzoa izango da, eta EAE osatzen duten udalerri gehienek adostu beharko dituzte, agindu honen 5.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Deialdi honen ondorioetarako, eta erreferentzia-irizpide gisa, honako 30 eskualde hauek hartuko dira halakotzat:

- 1) Bidasoa Behea / Bajo Bidasoa (Hondarribia, Irun).
- 2) Oarsoaldea (Pasaia, Lezo, Oiartzun eta Errenteria).
- 3) Donostia-San Sebastián.
- 4) Donostia Mendebaldea / San Sebastián Oeste (Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarraga).
- 5) Tolosaldea/Tolosa (Zizurkil, Altzo, Asteasu, Aduna, Larraul, Alkiza, Baliarrain, Berrobi, Bidegoian, Albiztur, Legorreta, Villabona, Hernialde, Tolosa, Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Abaltzisketa, Amezketa, Irura, Ibarra, Leaburu, Elduain, Berastegi, Belauntza, Lizartza, Anoeta, Gaztelu eta Oresa).
- 6) Urola Erdia / Urola Medio (Aizarnazabal, Zestoa, Azkoitia, Azpeitia).
- 7) Goierri (Gabiria, Mutiloa, Zerain, Zegama, Beasain, Ormaiztegui, Gaintza, Itsasondo, Segura, Idiazabal, Alzaga, Arama, Ordizia, Lazkao, Olaberria, Zaldibia eta Ataun).
- 8) Debagoiena / Alto Deba (Elgeta, Bergara, Antzuola, Arrasate/Mondragón, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati).
- 9) Debabarrena / Bajo Deba (Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Sorluze-Placencia de las Armas).
- 10) Urola Garaia / Alto Urola (Urretxu, Zumarraga, Ezkio-Itxaso eta Legazpi).
- 11) Urola Kosta / Costa Urola (Zumaia, Getaria, Zarautz, Orío, Aia, Errezil eta Beizama).
- 12) Vitoria-Gasteiz.
- 13) Aiara Ibarra / Valle de Ayala (Artziniega, Okondo, Audio/Llodio, Ayala/Aiara, Amurrio eta Urduña/Orduña).
- 14) Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa (Samaniego, Villabuena de Álava/Eskuernaga, Labastida/Bastida, Leza, Navaridas, Laguardia, Lapuebla de Labarca, Elciego, Elvillar/Bilar, Kripan, Lanciego/Lantziego, Yécora/Ilekora, Oyón-Oion, Moreda de Álava/Moreda Araba eta Baños de Ebro/Mañueta).

15) Arabako Lautada / Llanada Alavesa (Arrazua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna, Salvatierra/Agurain, San Millán/Donemiliaga, Zalduondo eta Asparrena).

16) Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea (Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia, Legutio eta Aramaio).

17) Arabako Ibarak / Valles Alaveses (Valdegovia/Gaubea, Kuartango, Añana, Erriberagoitia/Ribera Alta, Lantarón, Iruña Oka/Iruña de Oca, Ribera Baja/Erribera Beitia, Armiñón, Berantevilla eta Zambrana).

18) Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa (Peñacerrada-Urizaharra, Lagrán, Bernedo, Arraia-Maeztu, Harana/Valle de Arana eta Campezo/Kanpezu).

19) Gobela (Getxo eta Leioa).

20) Txorierri (Loiu, Erandio, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu).

21) Uribealdea (Berango, Sopelana, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Maruri-Jatabe; Bakio, Plentzia, Urduliz, Gatika, Laukiz, Mungia, Meñaka, Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fika).

22) Durangaldea / Duranguesado (Iurreta, Durango, Izurtza, Mañaria, Berriz, Abadiño, Mallabia, Ermua, Zaldibar, Elorrio, Atxondo eta Garai).

23) Busturialdea (Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Errigoiti, Murueta, Forua, Gernika-Lumo, Muxika, Elantxobe, Ibarrangelu, Gautegiz-Arteaga, Kortezubi, Arratzu, Ajangiz, Ea, Ereño, Nabarniz, Mendata eta Morga).

24) Lea-Artibai (Ispaster, Lekeitio, Mendexa, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Ziortza-Bolibar, Amoroto, Ondarroa, Berriatua, Markina-Xemein eta Etxebarria).

25) Enkarterri/Encartaciones (Galdames, Güeñes, Gordexola, Sopuerta, Zalla, Trucios-Turtzioz, Artzentales, Balmaseda, Lanestosa eta Karrantza Harana/Valle de Carranza).

26) Arratia-Zornotza / Arratia-Amorebieta (Amorebieta-Etxano, Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Arteaga, Areatza, Dima, Zeanuri, Otxandio eta Ubide).

27) Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión (Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Zaratamo, Ugao-Miraballes, Arakaldo, Zeberio eta Orozko).

28) Bilbao.

29) Ezkerraldea / Margen Izquierda (Muskiz, Zierbena, Abanto y Ciérvana/Abanto Zierbena, Santurtzi, Portugalete, Ortuella, Sestao, Valle de Trápaga-Trapagaran eta Barakaldo).

30) Ibaizabal (Etxebarri, Basauri eta Galdakao).

3.— Salbuespen gisa, Enplegu Planek aipatutako eskualdeekin bat ez datorren lurralde-eremua izan dezakete honako kasu hauek:

a) Egitura sozioekonomiko berezitua, eskualdeko naturala edo zerbitzuen kudeaketa mankomunatua direla medio, horrela justifikatzen badute behar bezala.

b) 24.000 biztanletik gorako udalerriak badira, betiere udal-eroldaren 2011ko urtarrilaren 1eko Berrikuspenaren arabera.

4.— Eskualderen batean ez bada Enplegu Plana gauzatzen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain har dezake, baldin eta egokitzen hartzen badu, Eskualdeko Enplegu Plana egitea.

3. artikulua.– Eskualdeko Enplegu Plana egiteko Partaidetza Foroa.

1.– Eskualdeko Enplegu Plan osoa egitea eta, hala badagokio, Plan horretatik ondorioztatzen diren ekintza jakinen egikaritzea ez ezik, Planaren jarraipena ere metodologia bati jarraiki egin beharko lirateke Planaren lurralde-eremukoak diren erakundeen, gizartearen eta ekonomiaren agente publikoen eta pribatuen benetako partaidetza bermatuko duen metodologiari jarraiki, alegia.

Horretarako, Eskualdeko Enplegu Plana dinamizatuko den eskualdeko Udalek, Mankomunitateek edo Taldeek babestutako, sustatutako eta lideratutako foroak edo lantaldeak eratuko dira.

Parte hatuko duten enpresek eta erakundeek ekintzak proposatzeko, eta, hala badagokio, Planaren barruan proiektuak sortzeko gaitasun teknikoa izan beharko dute, baita baliabideak emateko eta/edo finantzatzeko aukera ere.

2.– Partaidetza Foroetan honako hauek parte hartu ahal izango dute:

- Foroek izendatutako udalerriek, mankomunitateek edo taldeek eta mendeko erakundeek.
- EAEn ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalek eta enpresa-erakundeek.
- Tokiko Enpresa Elkartek eta/edo Enpresa Elkartek sektorialek.
- Dagokion eskualdean presentzia esanguratsua duten Enpresek.
- Foru Aldundiek.
- Enplegurako Prestakuntza Zentroek.
- Ikerketa Zentroek.
- Bazterketa- eta desgaitasun-arriskuan dauden kolektiboak laneratzearen alorrean espezializatutako Erakundeek.

Halaber, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere Lurraldeko Enplegu Bulegoen eta Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzaren Toki Garapeneko Arloaren bitartez, Partaidetza Foroak osatuko ditu.

Aipatutako erakundeak Foroan parte hartzera gonbidatuak izan direla egiaztatu beharko da diru-laguntzaren lehenengo ordainketa egin aurretik.

3.– Eskualdeko Enplegu Plana egitea bultzatzen duten Udalerriek, Udalerrien Elkartek, Mankomunitateek edo Taldeek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin ados jarri ondoren, erabakiko dute Foruaren osaera eta kide kopurua, betiere aintzat hartuta ezin izango direla 15 kide baino gehiago izan. Gainera, Foroaren arduraduna izendatuko dute, eta horrek Foroaren osaera sustatzeaz gain, Foroan parte hartuko duten erakundeak eta agenteak koordinatuko ditu.

Partaidetza Foroan funtzionamenduak erakundeen benetako partaidetza bermatu beharko du.

4. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 3.000.000 euro da, eta zenbateko hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2012ko ekitaldiko aurrekontutik eratortzen da.

5. artikulua.— Diruz laguntzeko moduko jarduna.

1.— Deialdi honen babesean, 2012ko ekitaldian Eskualdeko Enplegu Planak egiteak jaso dezake diru-laguntza, betiere xedapen honetako 2. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera gauzatzen bada, eta Planek gutxienez honako eduki hauek garatzen badituzte:

a) Planaren Hitzaurrea, honako hauek gutxienez biltzen dituen: Planaren zioen azalpena, Partaidetza Foroaren osoaren eta Plana egiteko jarraitutako metodologia.

b) Eskualdeko Enplegu Planari dagokion eskualdearen edo lurralde-eremuaren egoeraren azterketa eta diagnostikoa, honako gai hauei dagokienez:

- Demografia.
 - Gizarte-gaiak (gizarteratzea, aukera-berdintasuna, desgaitasuna,...).
 - Lan-merkatua:
 - Langabeen eta landunen tipologiaren deskribapena sexuaren eta adinaren, ikasketa-mailaren eta prestakuntza-espezialitateen, eta kolektiboen tipologiaren arabera (desgaitasuna duten pertsonak, bazterketa-arriskuan dauden pertsonak, iraupen luzeko langabezia dauden pertsonak, eta abar).
 - Enplegua lortzeko orientazioko eta prestakuntzako premiak (profesionaltasun-ziurtagiriak...).
 - Enpresa-sarea:
 - Sektore ekonomikoak.
 - Azken urteetan sortutako Enplegu Tipologia.
 - Azken hiru urteetan galdutako enplegu-tipologia.
 - Eskatutako profilak: enpleguaren ehunekoak ikasketa-mailaren, prestakuntza-espezialitateen eta abarren arabera.
 - Eskualdeko langabeen titulazioen eta azken urteetan sortutako enpleguaren konparazio-azterketak.
 - Enplegua lortzeko behar den prestakuntza eta prestakuntza ematen duten agenteen egungo eskaintza.
 - Egungo enplegu-tipologia.
 - Plantillak berritzeko datoen 5/10 urteetan izango diren premien aurreikuspena (adin-piramidearen arabera...) betiere GAZek egindako azterlanaren gomendioaren arabera.
 - Industria-lurzoruaren, azpiegituren, uztartzeari laguntzeko (haurtzaindegiak...) eta abarren premiarik dagoen edo ez.
 - Eskualde bakoitzean esku hartzen duten enplegu-agenteak (Lanbide, udalak, garapen-agentziak, LHko ikastetxeak, enplegu-agentziak,...).
- Aipatutako adierazleez gain, Diagnostiko horretan eskualdeko enpresen iritzia eta balioespena txertatu beharko dira, iritzia tamainaren, sektoreen eta abarren arabera bereiziz.
- Azpiegiturak eta zerbitzuak (garraioak, kultura, aisia,...).

- Hirigintza, etxebizitza eta eraikuntza.
- Ingurumenari eta baliabide naturalei buruzko informazioa.
- Diagnostikoa egiteko tresnak aplikatzea, esate baterako AMIA egitea, arrakastarako faktore kritikoak...

Halaber, diagnostiko horretan laburpen historikoa bildu beharko da, eta laburpen horretan ekonomia-sustapenaren, enpleguaren eta prestakuntzaren eta ekintzailatzaren inguruan azken urteetan egindako ekintzak eta abar jaso beharko dira.

Eskualdeko Enplegu Planen Diagnostikoa egiteko informazioa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Kabinete Teknikoak, hots, Lanbide Prestakuntzaren Euskal Sistemaren Behatokia kudeatzen duenak, emango du.

c) Helburuak eta estrategia:

Eskualdeko Enplegu Planean epe ertainera eta luzera lortu behar diren helburu orokorrak bildu beharko dira, baita helburu horiek lortzeko jarraitu beharreko estrategia, proiektu jakin batzuk ondorioztatuko dituzten jardun-ildoak edo -ardatzak eta helburu orokorren lorpena neurtzea eta ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak ere.

d) Eskualdeko Enplegu Planaren Ekintza Plana diseinatzea eta egitea.

Ekintza Planean bildutako proiektu bakoitzak, gutxienez, honako eduki hauek garatuko ditu:

- Helburu espezifikoak: proiektuaren ondorioz lortu nahi den eta eutsi nahi den egoera.
- Emaizak: proiektuaren jarduerak egikaritzearen ondorioa.
- Adierazleak: emaitzak zenbateraino lortzen diren jakiteko neurriak (zuzenekoak edo zeharkakoak).
- Jarduerak: helburuak lortzeko programatutako ekintzak.
- Planaren baliabideak: jarduerak gauzatzeko behar diren ondasunak eta zerbitzuak.
- Jarduteko kronograma: proiektua denbora-sekuentzia moduan banatzen eta antolatzen duen eskema, diseinatutako esperientzia eta jarduera multzoa.
- Proiektuaren antolaketa eta lidergoa.
- Aurrekontua: proiektua garatzeko eta egikaritzeko kalkulaturako gastua.
- Proiektua finantzatzeko aurreikusitako iturriak eta inbertsio-ahalegina.
- Jarraipena eta ebaluazioa: jardueraren txostenak eta memoriak, proiektua garatzeari eta emaitzak neurtzeari buruzkoak.
- Zeharkako ikuspegia: genero- eta aukera-berdintasuna desgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeko.

e) Eskualdeko Enplegu Planaren Ekintza Plana egikaritzeari eta hari jarraipena egiteari buruzko aurreikuspenak.

f) Eskualdeko Enplegu Plana ebaluatzeko metodoak.

Ebaluazioak zeharkako eta etengabeko fasea izan behar du prozesu osoan. Eskualdeko Enplegu Planaren definizioan gutxienez lau ebaluazioa mota bilduko dira:

- Aurretikoa: plangintza balioestea.
- Bitartekoa: helburuak bete ote diren egiaztatzea aldizka.
- Amaierakoa: egikaritzen bukatu ondoren, garapenean gertatu den oro aztertzea.
- Inpaktua: proiektuak lurraldean izandako eragina egiaztatzea denbora-tarte bat igaro ondoren (12-24 hilabete).

Ebaluazioaren metodologiak honako irizpide hauei jarraituko die: proiektuaren egokitasuna, efikazia eta eraginkortasuna, termino ekonomikoetan eta enpleguetan izandako eragina, iraunkortasuna, genero-berdintasuna eta aukera-berdintasuna desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatuan sartzeko.

2.– Diru-laguntza jasotzeko, Planen lurralde-eremua osatzen duten udalerri guztien 2/3k gutxienez egin eta ados egon behar du Eskualdeko Enplegu Planekin, deialdi honetako 3. artikuluan aurreikusitako Partaidetza Foroaren barruan, eta kopuru hori udalerrien guztizko biztanleriaren % 51 izango da gutxienez, betiere 2011ko urtarrilaren 1ean egindako udal-eroldaren berrikuspenetik lortutako datuen arabera.

3.– 2.3 artikuluan aurreikusitako kasuak eskualde berean biltzea bazter utzi gabe, Eskualdeko Enplegu Plan bat bakarrik lagunduko da diruz eskualde bakoitzeko.

6. artikulua.– Laguntzak jasotzen dituzten erakundeak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzen onuradunak izango dira, horretarako egindako eskabidea gauzatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Mankomunitateak, Taldeak, Udalerrien elkarteak edo Udalerriak, azken horiek beren izenean, 2.3.b) artikuluan aurreikusitako kasuan, baldin eta berez edo horien mendeko erakundeen bitartez, Eskualdeko Enplegu Plan bat gauzatzen eta dinamizatzen badute.

Eskualdeko Enplegu Plana egiteko elkartutako udalerriek ordezkari bat izendatu beharko dute, eta ordezkari horrek behar adinako boterea izango du elkarteari, onuradun gisa, dagozkion betebeharrak betetzeko. Ordezkari horrek diru-laguntzaren eskabidea aurkeztuko du eta Partaidetza Foroaren presidentea izango da.

2.– Erakunde onuradunek honako baldintza eta betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Gizarte Segurantzaren kotizazioen ordainketari dagokionez, egunean egotea.
- Zigor– eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
- Laguntzak emateko, eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoen esparruan hasi eta oraindik tramitazioan dagoen itzultzeko edozein prozedura nahiz zehapen-prozedura amaitzea.

7. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Eskualdeko Enplegu Plana egiteko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hurrengo paragrafoan azalduko diren gastuak diruz lagunduko ditu, gehienez ere 75.000 euro Eskualdeko edo 2.3 artikuluaaren a) atalean aurreikusitako lurralde-eremuko Enplegu Plan bakoitzeko.

2.3 artikuluaaren b) atalean aurreikusitako kasuan, diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoak honako hauek dira:

– Gutxienez 100.000 biztanle dituzten udalerrien kasuan: gehienez ere 100.000 euro udal-eremuko Enplegu Plan bakoitzeko.

– 24.000 biztanletik gorako eta 100.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan: gehienez ere 50.000 euro udal-eremuko Enplegu Plan bakoitzeko.

Diru-laguntzak ezin izango du deialdi honen babesean diruz lagun daitekeen jardunaren kostu globalaren % 75 gainditu.

2.– Honako gastu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

a) Eskualdeko Enplegu Plana egiten parte hartzen duten langileen dedikazio-orduei dagokien soldata-kostua, Gizarte Segurantzaren kotizazioa barne. Langile horiek erakunde onuradunaren zerbitzuplean daudenak izan daitezke, erakunde onuraduna osatzen duten udalerrietakoak edo udalerrri horien mendeko den eta proiektuaren egikaritze materiala agindu zaion erakunderen batekoak.

b) Hala badagokio, Eskualdeko Enplegu Plana egiten laguntzeko kontratatutako kanpoko enpresen zerbitzuei dagokien kostua.

c) Erakunde onuradunak egindako bestelako gastuak, proiektua egiteari eta kudeaketari egotz dakizkiekeenak; esate baterako, Partaidetza Foroaren bilerak antolatzea, jakinarazpenak eta erakundearen gastu orokorrak. Gastu horiek ezin izango dute gastu finantzagarrien % 15 gainditu.

8. artikulua.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Deialdi honetan aipatzen diren diru-laguntzak lortzeko eskabideak aurkezteko, <http://www.lanbide.net> webgunean azaltzen den eredu ofiziala beteko da, Lanbideren Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan eta Lanbideren Lurraldeko Enplegu Bulegoetan egongo da eskuragarri.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Eskabide horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskualdeko Enplegu Plana egiteko proiektuaren memoria teknikoa. Deialdiaren betekizunak eta laguntzak esleitzeko irizpideak betetzen direla egiaztatzeko informazio nahikoa bildu beharko da memorian.

b) Memoria ekonomikoa, Eskualdeko Enplegu Plana egiteari buruzko gastuen aurreikuspenak biltzen dituen.

c) Hala badagokio, laguntzaren xede den Enplegu Planaren lurralde-eremua osatzen duten udalerrri-elkartearen osaera egiaztatzen duen dokumentua (atxikipen-gutunak eta udalerrien

partaidetza-konpromisoa, eta abar), baita ordezkari gisa jarduten duen udalerriaren izendapena eta ahalordetzea ere. Aipatutako udalerriek 5. artikulua 2. paragrafoan aurreikusten den gehiengoa osatuko dute.

d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratua, erakunde eskatzailea bere betebeharrak betetzeari dagokionez egunean dagoela egiaztatzen duena.

3.– Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak oso-osorik betetzen ez badira edo derrigor aurkeztu beharreko agiriekin, aurreko paragrafoan jaso direnak, aurkezten ez badira, erakundeari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, eta agindutako hori egiten ez badu eskabideari uko egin diola ulertuko dela adieraziko zaio. Halakorik gertatzen bada, Administrazioak eskabideari buruzko esanbidezko ebazpena eman eta ebazpen hori jakinarazi beharko du.

4.– Eskabideak aurkezteko bi hilabeteko epea izango da, Agindu hau EHAAr argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

9. artikulua.– Ebazpena emateko eskumeneko organoa, diru-laguntza emateko prozedura, ebazpena, epeak, berraztertze errekurtsoa eta publikotasuna.

1.– Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Laneratzea Aktibatze Zuzendaritza izango da, eta ebazteko eskumena duen organoa Lanbideren zuzendari nagusia.

2.– Eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta Deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak onartuko dira, eskabide horiek finantzatzera bideratutako funtsak agortu arte. Egoera hori EHAAr argitaratuko da.

3.– Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea egiten denetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, diru-laguntza jasotzeko eskabidea onartutzat hartuko da.

4.– Zuzendari nagusiaren Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka berraztertze errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik aurrera.

5.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, Lanbideren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, xedapen honen babesean diru-laguntza zein entitatek jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten eta, bestetik, zein entitateri emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, diru-laguntzak emateko Ebazpenak berariaz eta banan-banan ere jakinarazi ahal izango dira.

10. artikulua.– Eskualdeko Enplegu Plana egiteko epea.

Diru-laguntzaren onuradun izandako erakundeek Eskualdeko Enplegu Plana egin beharko dute eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan aurkeztu beharko dute hiru hilabeteko epean ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik aurrera.

11. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeko modua.

Diru-laguntza bi ordainketetan ordaindu da era honetan:

– Lehenengo ordainketa, % 50, diru-laguntza eman ostean, betiere erakundeei Foroan parte hartzeko egiten zaien gonbidapena, 3.2 artikuluan aipatzen dena, egiaztatu ondoren.

– Bigarren ordainketa, gainerako % 50a, Eskualdeko Enplegu Plana aurkeztu ondoren, Plana 5. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera eginda dagoela ziurtatu eta diruz lagundutako gastuak egiaztatu ostean.

Egiaztapen hori fakturak, soldata-ordainagiriak eta kotizazio-dokumentuak, TC1 eta TC2 ereduak, Enplegu Plana egiten ari den aldiari dagozkionak, eta/edo egindako gastuak egiaztatzen dituen idazkariaren/kontu-hartzailearen ziurtagiria aurkeztuz gauzatuko da.

Diru-laguntzaren bigarren ordainketa hori hiru hilabeteko gehieneko epean eskatu beharko da Enplegu Plana aurkeztzen denetik zenbatzen hasita.

Bigarren ordainketa egiteko, erakunde onuradunek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horretan egiaztatuko da Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez egunean dagoela erakunde onuraduna.

12. artikulua.– Betebeharrak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan orokorrean ezartzen direnak izango dira erakunde onuradunen betebeharrak, eta bereziki honako hauek:

1.– Diru-laguntza ematen duen erakundeak egin beharreko egiaztatze-jardunak onartzea, baita Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrol-jardunak ere.

2.– Laguntza ematen duen erakundeari, xede bera izanik bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea.

3.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako gorabehera objektibo edo subjektiboetan aldaketarik izanez gero, laguntza eman duen erakundeari horren berri ematea.

4.– Diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmen eragiten dioten gorabeheren berri ematea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea jarduera horiek egiaztatu, jarraitu eta kontrolatzeko prozeduretan.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko Ente publikoek eta Sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze– edo zigor-prozedura jakinaraztea.

13. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan deskribatutako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin; nolanahi ere, hainbat finantzaketa-iturritatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu diru-laguntzaren xede diren jardueren benetako kostua. Kostu hori gaindituz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da.

14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-jarduerak egiteko aukera izango du.

15. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, betiere, onuradunak helburu bererako beste edozein diru-laguntza edo laguntza jasotzen duela, eta horren zenbatekoak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandakoari batuta, onartutako kostu osoa gainditzen duela jakiten bada, emandako diru-laguntza aldatu egingo da, betiere laguntzaren onuradun izateko diru-laguntzen inguruko arauak ezarritako gutxieneko betekizunak betetzen badira, diru-laguntza emateko ezarritako irizpide eta mugak aplikatuz.

Justifikatutako gastuen zenbatekoa emandako diru-laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diru-laguntza emateko Ebazpena aldatu egingo da laguntzaren zenbatekoa egokitzeke edo, hala badagokio, dagokion itzulketa-prozedurari hasiera emango zaio.

16. artikulua.– Babesa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jasotzen dutela adierazi beharko dute esanbidez erakunde onuradunek, diru-laguntza jasotzen duten eta horien dibulgazioa, hedatzea, edo, hala badagokio, argitaratzea dakarten jarduera guztietan.

17. artikulua.– Ez betetzeak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten erakunde onuradunak, edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbideren zuzendari nagusiak Ebazpen bat emango du; horren bitartez, ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako laguntza eta aplika daitezkeen legezko interesak Lanbideren Diruzaintza Orokorrari itzuli behar dizkiola, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Diru-kopuru horiek herri-dirutzat hartuko dira, dagozkien legezko ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da erantzukizunen araubidea.

18. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuan, honako hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

Lanbideren zuzendari nagusiak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den adieraziko dio erakunde interesdunari, eta 15 eguneko epea emango dio egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan. Prozedura hasteak, hala badagokio, eten egingo ditu oraindik egin ez diren ordainketak.

Alegazioak jaso ondoren edota epe hori alegaziorik aurkeztu gabe igaroz gero, Lanbideren zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez amaiera emango zaio itzultze-prozedurari. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea gehienez hamabi hilabetekoa izango da.

Ebazpenean arauren bat bete gabe utzi dela joz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, Ebazpena jakinarazten denetik hasita bi hilabeteko epean dagozkion diru-kopuruak Lanbideren Diruzaintza Orokorrera itzuli beharra deklaratu da. Epe hori borondatezko alditzat hartuko da.

Borondatezko aldian itzultzen ez bada, dagozkion izapideei hasiera emango zaie premiamendubidetik berreskuratzeke.

19. artikulua.— Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere fitxategi automatizatueta sartuko ditu Deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak.

Halaber, interesdunek Legean aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat igorriko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa ezar diezaioke interesdunek Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.— Noiz izango dituen ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 9a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.